



ASTE BURU HONETAN IZANGO DIRA IPAR URIBE ETA ARRATIAKO FINALAK

Astebeteko atsedenaldiaren ostean, barriro be martxan dira Bizkaiko Eskualdeetako Bertsolari Txapelketak. Datorren zapatuan, maiatzaren 17an, Ipar Uribeko finala izango da eta domekan, maiatzaren 18an, ostera, Arratiakoa.

Ipar Uribeko txapelketan 20 lagunek parte hartu dabe eta, beraz, hiru kanporaketa saio egin behar izan dabez finalean abestuko daben sei bertsolariak aukeratzeko. Barikuan, maiatzaren 9an, izan zan azken kanporaketa Fikan eta ez zen entzulerik ez girorik falta izan. Aurreko kanporaketak Larrabetzun eta Sopelan izan dira. Hiru kanporaketetako puntuazioak kontuan hartuta, honexek izango dira maiatzaren 17an Areetako Andres Isasi musika eskolan abestuko duten sei bertsolariak: Miren Ibarluzea, Olatz Ibarluzea, Jone Uria, Arrate Illaro, Itsaso Paia eta Peru Vidal. Saioa 18:00etan hasiko da eta Aitzol De Castro izango da gajartzailea.

Arratiako txapelketan bost bertsolarik bakarrik emon dabe izena eta, beraz, bost horreek abestuko dabe finalean: Iñaki Iturriotzek, Jabier Olibaresek, Eñaut Intxaurregak, Manex Sagarnak eta Illart Gumuziok, hain zuzen be. Lehenengoz Igorren izango da Arratiako finala, bertako kultur etxean, 17:00etan. Gajartzailea Saioa Amuriza izango da.

Bai batean eta bai bestean epaimahai bera izango da. Josu Telleria, Iñaki Aurrekoetxea, Mirari Azula eta Asier Ibaibarriaga ibiliko dira epaile lanetan eta Miren Itziar Basterretxea idazkari lanetan.

Bertsolariak

ARRATIAKO TXAPELKETA

- **Eñaut Intxaurrega.**- Zeaniztarra, 31 urte. Euskal Filologia ikasi ostean, irakasle lanetan dabil. 1998an parte hartu eban lehenengoz Bizkaiko Bertsolari Txapelketan (Garai horretan Araba-Bizkaikoa zan). 2000, 2002 eta 2004ko txapelketetan finalaurrekoetara heldu zan; eta 2004ko zein 2006ko Arratiako txapelduna da.
- **Iñaki Iturriotz.**- Igorreztarra, 25 urte. Kazetaritzan lizentziatua. Gaur egun, doktoradutza egiten dabil eta Bertsozale Elkarteko komunikazio taldeko kidea da. 2006ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketan finalaurrekoetara heldu zan.
- **Jabier Olibares.**- Zeaniztarra, 28 urte. Fabrikari lan egiten dau. 2002ko Arratiako txapelduna.
- **Manex Sagarna.**- Igorreztarra, 21 urte. Euskal filologia ikasten dabil. Duela lau urte be kantatu eban eskualdeko finalean.
- **Illart Gumuzio.**- Igorreztarra, 18 urte. Lehenengoz parte hartuko dau eskualdeko txapelketan.

IPAR URIBEKO TXAPELKETA



- **Olatz Ibarluzea.**- 21 urteko Mungiarra. Topografia ikaslea gasteizen. Aurton bigarrenenez doa bizkaiko txapelketara.
- **Itsaso Paia.**- Getxoztarra. 19 urte. Psikologia ikaslea. 2006ko Ipar Uribeko txapelduna.
- **Peru Vidal.**- 20 urte. Ikaslea. Sortzez Plentziakoa dan arren, Leioan bizi da gaur egun. Bigarrenenez parte hartuko dau Ipar Uribeko bertsolari txapelketan.
- **Arrate Illaro.**- 19 urteko algortarra. Ikusentzunezkoak ikasten dabil Leioan. Eskolartekoetan Euskal Herriko txapelduna 2006an. Lehenengoz parte hartuko dau Ipar Uribeko Bertsolari Txapelketan.
- **Miren Ibarluzea.**- 1984an jaioa. Mungiarra. Itzulpengintza eta interpretaritzan lizentziatua. Egun Labayru ikastegian ari da beharreen, Herri Ondarea mintegian irakaskauntzarako materialgintzan. 2006ko Bizkaiko Bertsolari txapelketan finalurrekoetan abestu eban.
- **Jone Uria.**- 18 urteko algortarra. Bizkaiko Eskolartekoetan txapeldun izandakoa txikietan zein nagusietan. Lehenengoz parte hartuko dau Ipar Uribeko Bertsolari Txapelketan.

Bertsolariek egin beharreko lana

A ATALEAN

- Binaka, gaia emonda 3na bertso zortziko handian
- Binaka, gaia emonda 3na bertso zortziko txikian
- Bakarka, hasierako puntua emonda bertso 2 zortziko txikian
- Bakarka, gaia emonda 2na bertso doinu eta neurri librean

B ATALEAN

- Binaka, gaia emonda 3na bertso hamarreko txikia
- Kartzelako lana:
 - Banaka, gaia emonda 3na bertso doinu eta neurri librean

Lehen atalean puntu gehien lortutako bi bertsolariak pasatuko dira bigarren atalera. Lehen ataleko eta bigarren ataleko puntuaketa metatu egingo dira, eta irabazleak Bizkaiko Txapelketarako pasea lortuko du. Bigarren gelditu dena eta gainontzekoak, lehen ataleko puntuazioaren arabera izango dute sailkatzeko aukera.